VITORIA-GASTEIZKO EL BOULEVARD MERKATARITZA-GUNEKO PRIBATUTASUN-POLITIKA

Pribatutasun-politika honen bidez, jakinarazten dizugu zure informazio pertsonala bildu eta tratatzen dugula gure Aplikazioa deskargatzen eta erabiltzen duzunean, eta bertan erregistratzen zarenean.

Pribatutasun-politika honek VITORIA-GASTEIZKO EL BOULEVARD MERKATARITZA-GUNEKO JABEEN ERKIDEGOA eta klubberren arteko harremana zuzentzen du. Politika hau onartzen ez baduzu, ezingo zara erregistratu Aplikazioan, ezta hura erabili ere.

1. LEGE APLIKAGARRIAK.

- Europar Parlamentuaren eta Batzordearen (EB) 2016/679 Araudia, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio librearen aurrean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/CE Zuzentaraua baliogabetzen duena (Datuen babesari buruzko araudi orokorra).

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

- 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, Informazioaren gizarteko zerbitzuei eta merkataritza elektronikoari buruzkoa.

2. ZEIN DA KLUB APLIKAZIOAREN BIDEZ EMANDAKO DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURADUNA?

Aplikazioaren bidez emandako datuen tratamenduaren arduraduna VITORIA-GASTEIZKO EL BOULEVARD MERKATARITZA-GUNEKO JABEEN ERKIDEGOA da, H01357698 IFZ duena, eta helbidea Zaramaga kalea 1, 01013 Vitoria-Gasteiz (Araba) Espainia duena, eta harremanetarako helbide elektronikoa berriz: el-boulevard@el-boulevard.com.

3. ZEIN DATU BEHAR DIRA KLUB APLIKAZIOAREN EGINBIDE DESBERDINAK ERABILI AHAL IZATEKO?

Gure Aplikazioak eskaintzen dituen eginbide desberdinak erabili ahal izateko, aldez aurretik erregistratzeko eskatuko dizugu. Erregistro horretan, datu hauek eskatuko dizkizugu:

- Izena.
- Abizenak.
- Helbide elektronikoa.
- Jaioteguna.
- Helbidea.

Facebook-eko edo Apple IDaren kredentzialak erabiliz ere erregistratu ahal izango zara. Aukera hori erabiliz gero, Facebook-ek edo Apple-k baimendutako oinarrizko datuak bilduko ditugu. Inola ere ez ditugu atzituko zure pasahitzak.

Gutxieneko adina. Klub aplikazioaren bidez eskainitako zerbitzuak 14 urtetik gorako pertsonentzat dira. Ez dugu, dakigula, adinez txikikoen datu pertsonalik biltzen. 14 urtez azpiko

pertsona baten datu pertsonalak bildu ditugula ohartzen bagara, datu horiek gure zerbitzarietatik ezabatzeko beharrezko neurriak hartuko ditugu.

4. ZEIN DATU DIRA AUKERAKOAK?

Erregistratzeko unean edo geroago, zure profila osatu ahal izango duzu datu hauek emanda:

- Sexua.
- Bisita mota.
- Telefonoa. Erregistratu eta gero, telefono edo mezu elektroniko bidez komunikazio komertzialak bidaltzeko baimena eskatuko dizugu. Baimen hori noiznahi desaktiba dezakezu Aplikazioan bertan.
- Kokapen geografikoa. Erregistratzen zarenean, zure kokapena atzitzeko baimena eskatuko dizugu, eta El Boulevard merkataritza-gunean zaudenean (ez dugu zure GPS kokapena erabiliko, eta interesgune batean zaudela egiaztatzeko ezinbesteko denboran soilik aktibatu eta desaktibatuko dugu wifi-antena (1 s)). Prozesu hori atzeko planoan egingo da, eta ez duzu Aplikazioa erabiltzen egon beharko. Baimen hori noiznahi desaktiba dezakezu Aplikazioan bertan edo zure gailu mugikorreko ezarpenetan.
- Profileko argazkia. Profila zure argazkiarekin osatzeko, zure gailuko irudien galeria edo kamera atzitzeko baimena eskatuko dizugu. Noiznahi desaktiba dezakezu baimen hori gailu mugikorreko ezarpenetan.

"*Jaioteguna*", "*sexua*", "*bisita mota*", "*helbidea*" eta "*kokapen geografikoa*" datuak informazio pertsonalizatuagoa eskaintzeko emango dugu (segmentazio-teknikoen bidez: datu orokorrak eta zehatzak erabiliz klubberren kategoriak zehazteko eta kategoria horiekin bat datorren informazioa bidaltzeko (adibidez, 30 eta 40 urteen arteko klubberrei promozio zehatzak bidaltzeko eta abar). "*Kokapen geografikoa*" datuak zerbitzu jakin batzuk atzitzeko eta analisi-xedeetarako ere erabiltzen dira (El Boulevard merkataritza-gunean zein eremu eta interesgune bisitatzen diren gehien jakiteko).

5. ZEIN XEDEREKIN TRATATZEN DITUGU ZURE DATUAK?

Klub Aplikazioaren atalen arabera, xede hauetarako tratatzen ditugu zure datuak:

5.1 Klub Aplikazioko erabiltzaile-profila erregistratzea eta kudeatzea.

Erregistratzeko emandako datuak eta profileko datuak VITORIA-GASTEIZKO EL BOULEVARD MERKATARITZA-GUNEKO JABEEN ERKIDEGOAREN datu-basean gehituko dira, Aplikazioaren bidez eskainitako zerbitzuak kudeatzeko. Aplikazioan erregistratu eta gero, helbide elektronikoarekin eta pasahitzarekin sartu ahal izango zara. Sistemak automatikoki identifikatuko zaitu zure kredentzialak erabiltzen dituzunean.

5.2 Datuen erabilera eta xede nagusiak.

a) Interes dakizkizukeen albisteen, gertaeren eta promozio berezien berri ematea. Nahi baduzu, telefono eta posta elektroniko bidez ere eman diezazukegu horien berri. El Boulevard merkataritza-gunean zauden bitartean biltzen ditugun kokapen geografikoaren datuak informazio pertsonalizatuagoa emateko eta zerbitzu jakin batzuetan sartzen uzteko erabiliko dira.

b) Gertaeretako, zozketetako eta zerbitzu esklusiboetako parte-hartzea kudeatzea. Beharrezkoa balitz, une horretan bertan jarriko dugu zure eskura datuen babeserako informazio guztia.

c) Aplikazioa nola erabiltzen duzun aztertzea, eraginkortasuna neurtzeko eta une oro ongi funtzionatzen duela ziurtatzeko. El Boulevard merkataritza-zentroan zauden bitartean bildutako kokapen geografikoaren datuak zein eremu eta interesgune bisitatzen diren gehien jakiteko erabiliko dira

5.3 Klub Aplikazioan baja ematea.

Aplikazioaren bidez eman dezakezu baja. Edo VITORIA-GASTEIZKO EL BOULEVARD MERKATARITZA-GUNEKO JABEEN ERKIDEGOARENGANA joan zaitezke edo mezu elektroniko bat bidal dezakezu el-boulevard@el-boulevard.com helbidera. Bi kasuetan nortasun-agiriaren fotokopia bat aurkeztu beharko duzu.

Baja jaso eta prozesatu eta gero, komunikazio bat bidaliko dizugu (mezu elektroniko edo SMS bidez), baja eman dela berresteko.

6. ZERGATIK TRATA DITZAKEGU ZURE DATUAK?

a) Erregistratzen zaren unetik trata ditzakegu zure datuak, bi aldeen artean zerbitzuak emateko harreman bat dagoelako.

b) Telefonoaren eta helbide elektronikoaren datuak tratatu ahal izango ditugu telefono eta posta elektroniko bidez komunikazio komertzialak bidaltzeko, hori egiteko onespena eman badiguzu. Onespena noiznahi erretiratu ahal izango duzu, nahiz eta ordura arte tratatutako datuek baliozkoak izaten jarraituko duten. Zure onespena noiznahi erretiratu ahal izango duzu Aplikazioaren bidez edo informazio hori bidali eta "*EMAN BAJA*" aukera sakatuta.

c) Zure "*jaioteguna*", "*sexua*", "*bisita mota*", "helbidea", "*kokapen geografikoa*" eta "*profileko argazkia*" datuak trata ditzakegu, datu horiek tratatzeko onespena eman badiguzu. Onespena noiznahi erretiratu ahal izango duzu, nahiz eta ordura arte tratatutako datuek baliozkoak izaten jarraituko duten. Zure onespena noiznahi erretiratu ahal izango duzu Aplikazioaren bidez edo gailu mugikorreko ezarpenetan.

d) Zure datuak analisiak egiteko trata ditzakegu, Aplikazioa etengabe hobetzeko eta segurtasuna bermatzeko interes legitimoa dugulako.

7. ZENBAT DENBORA GORDEKO DITUGU ZURE DATUAK?

Aplikazioan baja eman arte edo onespena erretiratu arte (aukerako datuen kasuan) gordeko ditugu datuak. Noiznahi eman ahal izango duzu baja "5.*3. Aplikazioan baja ematea*" atalean adierazten diren urratsei jarraikiz.

Batzuetan zure datuak gorde ditzakegu, behar bezala blokeatuta, lege aplikagarriei jarraikiz egon daitezkeen legezko ekintzen preskripzio-epean. Erreklamazioren bat aurkezten baduzu ere, erreklamazio horiek tramitatu ahal izateko beharrezko denboran gordeko ditugu datuak.

8. NORI JAKINARAZIKO ZAIZKIO ZURE DATUAK?

a) Gure tratamendu-arduradunei, arduradun horiekin kontratatu ditugun zerbitzuak ongi emateko datu horiek behar direnean.

b) Abokatuei, prokuradoreei, Auzitegiei eta Epaitegiei, erreklamazioak aztertu, gauzatu edo defendatzeko edo azken horiek egindako eskakizunei erantzuteko behar diren datuak.

Datuen beste lagapen bat jakinarazi beharko balitz, aldez aurretik jakinaraziko zaizu.

9. ZURE DATUAK NAZIOARTEAN TRANSFERITUKO DIRA?

Ez zure datuak ez dira nazioartean transferituko.

10. ZEIN ESKUBIDE DITUZU ZURE DATUAK EMATEN DIZKIGUZUNEAN?

- Atzitzea: zure buruzko datu pertsonalak tratatzen ari garen, zein diren, zertarako erabiltzen diren, zenbat denboran gordetzen diren eta hirugarren bati jakinarazi zaizkion edo jakinaraziko zaizkion ezagutzeko eskubidea.

- Zuzentzea: zehatzak ez diren datuak zuzen daitezen eta osatu gabeko datu pertsonalak osa daitezen eskatzeko eskubidea.

- Ezabatzea: datu pertsonalak zehatzak ez direnean, gehiegizkoak direnean edo bildu ziren xedeetarako beharrezkoak ez direnean, datu horiek ezaba daitezen eskatzeko eskubidea, baita ahaztua izateko eskubidea ere.

- Aurka egitea: zenbait egoeretan, zure datu pertsonalak tratatzeari aurka egiteko eskubidea, edo tratamendu hori uztea eskatzeko eskubidea.

- Tratamendua mugatzea: legez zehaztutako egoeretan, zure datuak gordetze hutsetik harago trata ez daitezen eskatzeko eskubidea.

- Eramangarritasuna: datu pertsonalak formatu egituratu, ohiko eta mekanikoki irakurtzekoan jasotzeko eskubidea, eta beste erakunde bati transmititu ahal izatea, baldin eta teknikoki posible bada.

- Zure kokapen geografikoa eta zure profileko argazkia atzitzeko eta, telefonoaren eta posta elektronikoaren bidez, albisteei, gertaerei eta promozio bereziei buruzko informazioa bidaltzeko onespena erretiratzeko eskubidea. Onespen hori erretiratzeak ez du eraginik izango aurez tratatu diren datuetan.

11. NOLA GAUZA DITZAKEZU ZURE ESKUBIDEAK?

Zure eskubideak gauzatzeko, aurkeztu nortasun-agiriaren fotokopia, eta bidali gutun bat Zaramaga kalea 1, 01013 Vitoria-Gasteiz (Araba) Espainia helbidera, edo bidali mezu elektroniko bat el-boulevard@el-boulevard.com helbidera. VITORIA-GASTEIZKO EL BOULEVARD MERKATARITZA-GUNEKO JABEEN ERKIDEGOAK eskubide horiek gauzatzeko eredu batzuk jartzen dizkizu eskura aldez aurretik adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan. Informazio gehiago: www.agpd.es.

Zure eskubidea errespetatu ez badira, erreklamazio bat aurkez dezakezu idatziz Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, Jorge Juan kalea 6, 28001 Madril (Madril) Espainia helbidean, edo erabili egoitza elektronikoa: https://sedeagpd.gob.es. Bi kasuetan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu.

12. KLUB APLIKAZIOKO PRIBATUTASUN-POLITIKAKO ALDAKETAK.

Noiznahi berrikusi edo egunera dezakegu Pribatutasun-gidalerro hau. Mezu elektroniko bidez edo Aplikazioan abisu nabarmen bat jarrita emango dizugu aldaketa garrantzitsuen berri.